

Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



Arantzazu ederra da (1)

Bitoriano Gandiaga eta Joan Mari Lekuona, bi poeta fin, adiskide bi, sentikide hainbat aldetatik. 1998. urtean Gandiagak gonbidatua zuen Lekuona elkarrekin egunen batzuk Arantzazun ematera. Eta olerki sorta berria, Arantzazu kantatzen zuena, prestatu zuen, adiskideari irakurriz elkarrekin Arantzazu ederra gozatzeko: hamabost bat testu. Euskaltzaindiaren aurrean Gandiaga hil berriaren omenez irakurritako hilondoko hitzaldian aitortu zuen Lekuonak, ez zuela asmo hura betetzerik izan.

Arantzazu ederra da
zein kanpotik zein barrutik;
Arantzazu ederra da.
Barrutik miresgarria,
zoragarria kanpotik.

Kanpotik zoragarria
Arantzazu; zer paisaia
gertutik zein asagotik:
orografia artega,
landareria zardaia!

Landareria zardaia,
harkaitz gabeko lurretan,
landareria zardaia!
Tartean haitz erraldoiak
kararren zilarretan.

Arantzazu zein kanpotik
zein barrutik, ederra da
edozein ikuspuntutik.
Kanpotik gustagarria,
barrutik gustu bera da.

Sorta hartako kantetako bat duzu hemengo hau. Arantzazuren orotariko ederra abesten da bertan: paisaia, lurra, harkaitzak, basoak, eliza (kanpoalde eta barrualde). Bitan zatitu dut hemen; lehen zati honetan Arantzazuko lurraldea kantatzen du. Arantzazuko santutegia eta bertako arte eta espiritualitatea guztiz bat eginda daude Gandiagarentzat Arantzazuko lurrarekin. Hurrengoan emango dut bigarren zatia. Irakurlearen erosotasunerako Gandiagaren hiztegiak azalpen bi: 'asagotik' = urrutitik, urrunditik; 'zardaia' = liraina, lerdena.